

Seigarren Murrizketa.- Obrak egiteko murrizketak

Zirkulazioaren ezaugarriak bereziak direnean eta ibilgailu ugari mugitzen direnean, bide-segurtasuna eta trafikoaren arintasuna hobetzeko xedez, Trafiko Zuzendaritza eta eragindako bideen erakunde titularrak koordinatuko dira, VI eranskinean jasota dagoena betetzeko.

Dena den, VI. eranskinean jasotako bide eta datetan obrak batzuk premiaz egin behar badira, bidearen erakunde titularrak, behar bezala arrazoituta, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroari jakinaraziko dio, behar besteko aurrerapenaz.

VI. ERANSKINA

2021. URTEAN ZEHAR, ZIRKULAZIOAREN EZAUGARRI BEREZIENGATIK ERREPIDEETAKO OBRAK ETETEA

2021. urterako aurreikusten diren trafiko operazioen ondorioz eta ibilgailu ugari mugituko diren joan-etorrien ondorioz, Trafiko Zuzendaritza eta errepideen erakunde titularrak koordinatuko dira hauek egiteko:

A: Eraginpeko eremuari eta zirkulazio-plataformari eragiten dieten obrak eteteko:

NOIZTIK		NOIZ ARTE	
Eguna	Ordua	Eguna	Ordua
Martxoak 18	15:00	Martxoak 21	24:00
Martxoak 31	15:00	Apirilak 1	24:00
Apirilak 5	08:00	Apirilak 5	24:00
Ekainak 25	15:00	Ekainak 26	24:00
Uztailak 30	15:00	Uztailak 31	24:00

Urriak 8	15:00	Urriak 9	24:00
Urriak 12	08:00	Urriak 12	24:00
Urriak 29	15:00	Azaroak 1	24:00
Abenduak 3	15:00	Abenduak 6	24:00
Abenduak 8	08:00	Abenduak 8	24:00
Abenduak 26	08:00	Abenduak 26	24:00
2022ko urtarrilak 2	08:00	2022ko urtarrilak 2	24:00

B: Zirkulazio-plataformari eragiten dioten obrak eteteko:

B.1.- Udako asteburuetan, uztailaren 2tik irailaren 6ra arte:

Ostiraleko 15:00etatik igandeko 24:00etara.

B.2.- Gainerako asteburuetan:

Ostiraleko 15:00etatik igandeko 24:00etara, salbu eta errepideen erakunde titularrek, arrazoi justifikatuengatik, berariaz kontrakoa jakinarazten badute.